

MARÍA AMOR BEGUIRISTAIN

## “On José Miguel Barandiarán liderra zen”

*Maria Amor Beguiristain Gurrupide (1949). Nafar antropologa, etnologoa eta historiaurrelaria. Historiaurre Katedraduna Nafarroako Unibertsitatean. Hainbat indusketa proiekturen zuzendaria da eta bibliografia zabala du monumentu megalitikoaren Arkeologiaz, Historiaurrearen atalean, eta batez ere Nafar Etnografiaz Antropologia Kulturalaren esparruan. “Euskalerriko Atlas etnografikoa” gauzatzeko ari den Etniker Proiektuaren Nafarroako arduraduna da.*

**2011n, On José Miguelen heriotzaren hogeigarren urteurrena beteko da. Zer alderdi nabarmenduko zenituzke?**

Asko, baina Barandiaranen ezaugarriak bereizgarriena hauxe zen: beti ari zen irakasten, ezer ere ez esan arren. Izugarriko errespetua zien ikasleei. Buru-belarri murgiltzen gintuen ikerkuntzetan. Gaiak inoiz ere ez zituen bukatutzat jotzen, beti baitzegoen zer ikertu. Baliagarriak ginela sentiarazten gintuen.

**Liderra zen?**

Liderra zen, berez, nahi gabe. Agerraldirik gabe, izugarriko itzala zuelako.

**Gure Herriko zientzialari handietako bat izan da Barandiaran. Gainera, ikertzaile-lanari bere gizatasun ikaragarria gehitzen zitzaion. Gaur egun, gure gizartea noraezan dabilela, ezaugarri hori berreskuratu egin beharko litzateke, ezta?**

Zalantzarik gabe. Gizatasun kristaua zen On José Miguelena. Izaera horretan oinarrituz, ikerkuntzak antolatu eta animatu egiten gintuen, zuzen zebilela uste zuelako, kritikak gorabehera. Bere azken urteetan, antropologia “agresiboa”

jarri zen modan, baina Barandiaranek ongi asko zekien datu apur batzuk teoria asko baino baliagarriagoak zirela. Zentzu horretan, datuei erreparatzen zien funtsean, teorizatzen ibili beharrean. Medio akademikoetan kontrako joera da nagusi.

**Zure esperientziaren arabera, nolako etorkizuna izango dute giza zientziak unibertsitateko irakaskuntza-bilbean eta gizartean?**

Zentzudunak bagara, giza zientziak erruz hedatuko dira eta balio handiagoa emango diegu. Gizarte osasuntsu eta zentzudunetan, giza zientziak gehiago hartu beharko lirateke kontuan.

Bolognaren bere ikuspegia eman du: titulu asko daude eta bideragarriak besterik ez dira eskaini behar. Betiko karreraren (historiaren, artearen historiaren...) profilak aski ezagunak ziren, baina giza zientzien karrera berriarenak ez zeuden hain argi, eta ez zegozkion esparruak bereganatu nahi zituela uste zuen zenbaitek.

**Beraz, filosofo-eskaririk ez badago, filosofiako karrera eskaintzeari utzi behar zaio...?**

Bai, bai... Horrelako zerbait. Gizarteak eskatzen ez dituen tituluak ez dira eman behar, ez omen direlako errentagarriak. Gure gizartea oso pragmatikoa da, eta karrerak ordaintzen dituzten gurasoek ere pragmatismo hori zeharo barneratuta dute. Semeak edo alabak lan ona eta arrakastatsua lortzeko moduko zerbait ikastea nahi dute. Mentalitate hori da nagusi.

**Baina agintari publikoek ikuspegi irekiagoa izan eta beste aukera batzuk eskaini beharko lituzkete, errentagarritasunari begiratu gabe...**

Gizartean hamaika gorabehera sortzen da. Adibidez, ekonomialari, ingeniari... asko



langabezian daude. Zer ari da gertatzen horren ondorioz? Benetako bokazioa duten ikasle asko ari zaizkigu etortzen, zenbat langabetu dauden ikusita, gogoko ikasketak egitea erabaki dutelako. Azken batean, gizartea zentzuduna da.

**Euskararen Nafar Kontseiluko kidea ere izan zara. Gizakiok ez ditugu gauzak errazten, ezta?**

Hobe esanda, izan naiz. Orain Luis Echarri da. Nafarroako Unibertsitatearen kide ordezkariak garela Azaldu nahi dut. Eta bai, egia da ez ditugula gauzak errazten. Aholkularitza-batzordeak dira. Eta penagarria da hizkuntzaren arloan, hain baliotsua izanik, defendatzeko, babesteko eta zaintzeko asmoetan denak bat ez etortzea.

**Euskara eta Euskal Kulturako Katedrako arduraduna zaren aldetik, euskarak eta euskal kulturak Nafarroan duten egoerari zer deritzozun jakin nahi nuke.**

Atzera begiratu, Iruñera etorri eta Unibertsitatean ikasten hasi nintzen garaian, Bajada de Javier kaleko farmazia bateko jabeak besterik ez nituen entzuten euskaraz hitz egiten. Orduetik hona, egoera izugarri hobetu da. Gai garrantzitsuak argitaratu dira, ikerketa-ildoak abiarazi... Bertako jendea saiatzen bada, euskal kulturak aurrera egingo duela uste dut. Kanpoko inor ez da etorriko salbatzera. Nafarroa kontinente txikia da, oso konplexua, zeharo anitza osaera historikoari dagokionez. Oinarri kultural eta euskal oinordea zaindu beharreko osagai garrantzitsua da, geuk zaindu behar duguna.

**Josemari Velez de Mendizabal**

Elkarrizketa osoa: [www.euskonews.com/561zbk/](http://www.euskonews.com/561zbk/)

La entrevista completa está disponible en euskera y castellano en la dirección mencionada.

CENDRINE LAGOUEYTE

## ‘Ongi etorri. Bienvenue au Pays basque’

La critique officieuse de l’imagerie touristique, à laquelle certaines personnes reprochent de stéréotyper la culture basque et plus encore de l’enfermer dans une image “folklorique”, “passéiste” et “immuable”, jugée “encombrante”, n’est pas exclusive à la destination “Pays basque”. Pourtant, elle nous a intéressée parce qu’elle est dans ce cas précis en grande partie produite par des habitants, c’est le cas notamment des brochures des Offices de Tourisme qui sont particulièrement visées par cette critique. Et même plus, les motifs dénoncés plus spécifiquement (la pelote, la danse en costume traditionnel) sont paradoxalement aussi ceux cités spontanément par d’autres personnes comme les composantes essentielles de “la culture basque”. Ainsi l’apparition dans l’image(rie) touristique des mêmes motifs peut être à la fois plébiscitée et décriée par les habitants. Ce constat laissait donc présager un décalage au sein même de la société locale, quant à la conception de ce qu’est la culture basque, qui s’exprimerait notamment dans la mise en tourisme de cette dernière.

Nous avons donc choisi d’examiner quelle est cette image touristique qui stéréotyperait et folkloriserait la culture basque, et quel rôle les habitants jouent dans son élaboration et sa diffusion (et réciproquement, d’analyser comment cette image touristique intervient dans la construction identitaire des habitants du Pays basque français), à partir de l’analyse des usages des motifs culturels dans la construction de l’image(rie) touristique.

Une première partie de la thèse retrace donc la construction de cette image(rie) touristique, du XIX<sup>e</sup> au XXI<sup>e</sup> siècle, en insistant sur la concomitance de la découverte scientifique et de la découverte touristique du Pays basque français. Elle revient sur la naissance du tourisme en Angleterre, sur le mouvement romantique qui réhabilita l’océan et la montagne, sur la construction de l’espace touristique “Côte basque” et sur les débuts de la “communication touristique”, c’est-à-dire la promotion émise par la destination en amont de la demande.

Une deuxième partie développe une comparaison synchronique des images des différents émetteurs du XXI<sup>e</sup> siècle, en mettant en exergue leurs intentions et leurs contraintes, dont le Comité Départemental du Tourisme et les principaux Offices de Tourisme (qui sont ceux émettant une brochure ou un document dit “d’appel”), mais aussi des éditeurs de cartes postales.

Enfin, une troisième partie explore l’usage des motifs dans la mise en tourisme de la culture basque, c’est-à-dire dans l’offre touristique concrète. Il y est notamment question des sites se présentant comme lieux où découvrir la culture basque ou l’un de ses motifs, des manifestations culturelles estivales et des biens à emporter en souvenir.

Cette enquête, menée entre 2005 et 2009, révèle à terme que l’imagerie touristique est

multiple; plusieurs images se superposent de sorte que “le Pays basque” s’avère être un territoire touristique variable et morcelé, avec notamment un contraste marqué entre une côte perçue comme urbaine, moderne et dynamique, et un arrière-pays (ou “intérieur”) décrit comme rural, traditionnel et statique. Ceci dit, globalement, le Pays basque français s’y résume à trois “super-motifs” que sont l’océan et la montagne, en tant qu’espaces à contempler et où exercer des activités, et la culture des habitants qui, elle, est limitée au thème de la fête (ou “art de vivre”) et présentée comme un ensemble de produits à consommer (spectacles, artefacts, aliments). La stabilité de cette imagerie touristique quant à l’évocation de la “culture basque” est par ailleurs flagrante. Et surtout, le rôle des habitants dans l’élaboration et la diffusion de cette représentation est loin de se cantonner aux brochures touristiques et de ne concerner que les professionnels du tourisme.

Car apparaît en filigrane un conflit -cristallisé dans le tourisme mais qui concerne en fait l’ensemble de la société- entre deux des représentations de la culture basque (il en existe d’autres) et même, au-delà, deux conceptions de la culture basque, qui elles s’opposent mais aussi parfois s’entrecroisent. La première est d’ordre substantialiste et envisage donc la culture basque comme un tout clairement délimité, identifié et immuable, tandis que l’autre à tendance constructiviste admet, plus ou moins, que la culture basque est une construction et donc en perpétuelle évolution.

\* Résumé de thèse lauréate du Prix Eusko Ikaskuntza-Ville de Bayonne 2010: *Usage des motifs culturels dans la construction de l’image(rie) touristique. ‘Ongi etorri. Bienvenue au Pays basque’*

Paperetik  
sarera

www.euskomedia.org



Vahan Sarkisian



Maite Idirin



### Cantar, beber y recordar

En enero de 1780 visitaba Bizkaia John Adams, quien diecisiete años después sería elegido como segundo Presidente de la historia de los Estados Unidos de Norteamérica. Con motivo del 231 aniversario de dicha visita, en Bilbao se ha inaugurado este mes un busto conmemorativo. Para quien desee conocer los principales detalles de la relación de John Adams con el País Vasco, en nuestra selección Atejoka de [www.euskomedia.org](http://www.euskomedia.org) ponemos el enlace con la voz correspondiente a este personaje de Auñamendi Eusko Entziklopedia.

De Estados Unidos saltamos a Armenia para rendir tributo a la memoria de Vahan Sarkisian,

fallecido el pasado 21 de enero. Académico de honor de Euskaltzaindia, Sarkisian había nacido en Erevan (Armenia) en 1954, y era doctor en Ciencias Filológicas e impartía en la Universidad del Estado. Fue impulsor del Centro de Estudios Armenio-Vasco y dirigió la revista internacional *Araxses*, centrada en los estudios comparativos entre el armenio y el euskera. En una de sus visitas a la sede de Eusko Ikaskuntza en Donostia, la periodista María Aguirre le entrevistó para *Euskonews*. Recuperamos esa conversación en la que Vahan Sarkisian habla de sí mismo y de su labor científica, de

Armenia y de su relación con lo vasco.

Tras nuestro periplo por Estados Unidos y Armenia, volvemos a casa haciendo parada en Baiona para saludar a Maite Idirin, intérprete vocal que ha sido galardonada con el Premio de la Cultura Vasca 2010 que conceden anualmente Eusko Ikaskuntza y la Ciudad de Bayona. Una breve semblanza de esta mujer entregada al arte de “bel canto” desde hace más de cuarenta años, que ha puesto voz a grabaciones de cantos populares euskaldunes, así como a composiciones de Usandizaga, Otaño, Sorozabal, Elizanburu, Aita Donostia, Eslava, Gorriti y Guridi, entre otros, queda

al alcance de quienes se asomen a nuestra ventana en Euskomedia.

Y para terminar nos ocupamos de un tema de gran actualidad: el txakoli, cuya denominación de origen está siendo motivo de conflicto con los productores del área castellana. Viene muy al caso que recuperemos un trabajo en dos entregas, profundo y esclarecedor, sobre su historia y su técnica de elaboración que publicó hace un par de años la revista *Euskonews*. Lectura que nos ayudará a formarnos una opinión bien fundamentada sobre lo que allí se define como un “vino afrutado, de grado ligero, singular acidez y aroma intenso”.

NATALIE MOREL BOROTRA

## Música y territorio

El término “territorio” se emplea cada vez más a menudo, tanto en sentido propio como en el figurado. Relacionarlo con el de “música” nos conduce a una serie de reflexiones y de preguntas que nos han parecido interesantes de abordar.



Con la invención de las naciones a partir del siglo XVIII, la relación entre una música y la tierra que la ve nacer se invierte o, para ser más exactos, se establece en ambos sentidos: desde una perspectiva nacional es la música, entre otros factores, quien crea la nación y su territorio, como ha mostrado Anne-Marie Thiesse (*La création des identités nationales*, Paris, Seuil, 1999), y es la construcción identitaria la que incita a la elaboración de un repertorio nacional. Las “escuelas nacionales” que florecieron en la Europa romántica hasta comienzos del siglo XX representaron, en la denominada música culta, la mayor forma de esta interdependencia, al tiempo que la etnografía y después la etnomusicología establecían correlaciones similares en el dominio de lo que se denominaba folklore. Y es el territorio, en el sentido de terruño, considerado como influyente sobre sus habitantes, quien reúne a los dos. Queda aún tarea para explorar dicho fenómeno y por continuar los estudios desde esta perspectiva.

### Un sitio desmaterializado

Actualmente, el vínculo nacional –si es que existe todavía adaptándose a la vida moderna y a la mundialización– quizás no sea ya tan pertinente para considerar todas las relaciones entre unas expresiones, unas prácticas musicales y un área geográfica. Si subsiste una dimensión de orden político-nacional, es en gran parte por el frecuente hecho de la aplicación de políticas culturales o de repercusiones económicas (por el sesgo de la industria del espectáculo o del turismo, por ejemplo). El territorio puede igualmente corresponderse con una zona que presente ciertas características, sin formular ninguna particular reivindicación global.

Además, dicho término ya no se comprende únicamente como un lugar geográficamente delimitado (esa “extensión de la superficie terrestre sobre la que vive un grupo humano”, como lo definió el *Petit Robert*), sino como un sitio desmaterializado, virtual: ya no hay solamente un mosaico de músicas nacionales o regionales, sino “espacios” que pueden trascender las fronteras, y que se reúnen en función de criterios (o de combinación de criterios) que ya no son los de una “comunidad imaginada” (Benedict Anderson) ligada a una tierra: clases de edad, estratos sociales, opciones estéticas, etc.


Las transformaciones de las prácticas culturales, la mezcla de las poblaciones y el desarrollo de las nuevas tecnologías contribuyen a modificar la situación. Las identidades son múltiples y móviles, se sobreponen. La fijación de la dinámica entre música y territorio ya no se limita a la dimensión nacional (por otra parte podríamos preguntarnos cómo se conjugan actualmente la música, el patrimonio musical y el territorio), y renueva la problemática de la representación identitaria.

### Musiker 17

El último número de *Musiker. Cuadernos de Música*, el 17 (<http://www.eusko-ikaskuntza.org/es/musiker>) propone un acercamiento pluridisciplinar a esta cuestión para un mejor tratamiento de la misma: además de los métodos “tradicionales” proporcionados por el análisis musical y la musicología histórica, pueden contemplarse contribuciones de la antropología, la sociología o la etnología.

¿Cuál es la recepción de una música en función de su inscripción en un territorio? ¿De qué manera permite la música constituir y difundir nuevos imaginarios y representaciones territoriales? ¿Cómo se dibujan actualmente las cartografías musicales?

## Gertatu zen



Leoncio Urabayen

### Geroa izango zuten hiru ekimen

### Trois initiatives prometteuses

### Tres iniciativas con futuro

Orain dela 90 urte, Eusko Ikaskuntzak korporazio argitalpen bakarra zuen, eta haren bidez jartzen zen harremanetan bazkideekin, informazio bibliografikoa emateaz gain: *Eusko-Ikaskuntzaren Deia*. Luis de Eleizalde bazkide sortzaileak argitalpen zientifiko bat izateko komenigarritasuna azaldu zuen

Batzorde Iraunkorraren aurrean, haren “alaba” Euskaltzaindiak berriki egin zuen bezala, bere azterketa aldizkaria sortuz: *Euskera*.

Eleizalderen proposamenak (kontu honetan “diskrezioz eta eraginkortasunez” jokatu zuen, Gregorio Monrealen arabera), *Eusko Ikaskuntzaren Nazioarteko Aldizkaria-RIEV* beretzea zuen helburu, Julio Urkixo, haren zuzendari eta sortzaile aldizkariaren buruan mantenduz. Batzorde Iraunkorrak kontuari heldu behar zion batzorde bat eratu zuen. Julian Elorza Lehendakariak, Angel de Apraiz Idazkariak eta Eleizalde berak osatu zuten batzorde hori.

### Bourses et bourses de voyage

Leoncio Urabayen, membre de l'Enseignement de l'Assemblée, proposa que la Société établisse des pensions et des bourses de voyage pour les recherches en Sciences Pures et en Sciences Appliquées, “en essayant qu'ils soient profitables au Pays”. Pour son financement on obtiendrait l'appui de personnes fortunées au moyen de l'établissement de fondations qui porteraient le nom du donateur. L'Assemblée félicita Urabayen pour l'idée et approuva la première convocation de bourses de l'histoire de la Société d'Etudes Basques.

### Primera auditoría

Un tercer aspecto de la organización interna de Eusko Ikaskuntza, que hoy nos parece casi rutinario, se habilitaba a comienzos de 1921: la auditoría anual de cuentas. Fue el propio personal de la sede de San Sebastián quien expresó la opinión de que al final de cada ejercicio los justificantes de gastos deberían ser “especialmente revisados por alguna persona que designe la Junta”. Agradeciendo el gesto, el órgano rector delegó la decisión en el Comité Ejecutivo, indicándole que podría encargarse de esa labor el Contador de la Diputación de Guipúzcoa, Fulgencio Zala, quien además era socio de Eusko Ikaskuntza.



## Kultura Ereileak

### Nabarralde erakundea

Euskal nortasunaren normalizazioa sustatzen duen taldea da Nabarralde. Horretarako, giltzarri diren elementuak ditu bere lan-tresna nagusi, esaterako, memoria historikoa: ondarea den aldetik, autoestimua mesederako laguntza handia eman dezake, baita gure burua aitortzeko eta kontzientzia kolektiboaz ohartzeko ere.

Euskal Herriak ondare aberatsa du, gizarte oparoa da kulturaz, hizkuntzaz, nortasunez eta beste hainbat moldez. Baina zenbait baldintza historiko eta politikoren ondorioz, ez dago normalizatu gizartearen berezko elementu hau. Aitzitik, akulturazio bilakaera luzea jasaten ari da.

Nafarroak iraganean –euskaldunon antolakuntza politikoaz ari garen neurrian– gure kulturaren bizikidetasun eta garapen markoa eskaini zuen. Gure ikusmoldearen arabera, nafarrak euskaldunak dira nortasunez.



Euskaldunak, halaber, dimentsio politikoan nafarrak dira.

Batzen gaituzten elementu horiek berreskuratzeko lanean dihardu elkarte honek. XXI. mendeko gizarte batek dituen erronkei aurre egiteko ideia eta proiektuak bultzatzen ditu, honela. Hitzaldiak, material pedagogikoak, erakusketak eta bestelako kultur

sustapen gaiak eta programak zabaltzen ditu.

1512ko Nafarroaren konkistaren memoria –subiranotasunaren galera, estatu nafarraren suntsitzea, bidegabeko eraso,

gerra eta beste– azken urteetan asko lantzen ari garen gaia da. Baina talde honen gogoeta ariketa ez da iraganean gelditzen, gaurko eztabaidara egokitzen saiatzen gara; gizarte postindustrialaren garen aldetik, gure burua lekutzea beharrezko zaigu egungo parametroetan legokigukeen estatusa izateko.

2010. urtean Euskal Herriko historialarien I. biltzarra burutu du

Vianan, eta aurrerapauso handia izan da urteetan landutako gaien ezagutzak oihartzun handia izateko eta tokiko adituen ahalegina uesteko lan duinen mailan kokatzeko. Horrek segida izanzen du eta 2011.ean bigarren saioa etorriko da.

Hauek eta beste hamaika kontu gurean egiten ari garena. Interneteko atari honetan Nabarralderen berri oro izanzen duzue: [www.nabarralde.com](http://www.nabarralde.com)

Ez izan zalantzarik eta anima zaitezte elkarte ezagutzen. Euskal Herri osoko jendea dugu sustatzaile, laguntzaile, eta horiei esker egiten dugu aitzina proiektu berriak diseinatu eta guztion ardurazko korapiloak gizarteratzen.

## Argitalpenak



### Memoria de mi Bilbao

AUTOR: JOSE MIGUEL DE AZAOLA  
BILBAO : MUELLE DE URIBITARTE, 2010  
204 P. : IL ; 24 CM.  
ISBN: 978-84-937587-4-5

Quien fuera Premio Manuel Lekuona de Eusko Ikaskuntza en 2000, José Miguel de Azaola (1917-2007), publicó en el periódico "Bilbao" entre octubre de 1988 y julio de 1993 una serie de 45 artículos que describen cómo era la vida en el Bilbao de su infancia y juventud, las décadas de 1920 y 1930. La editorial Muelle de Urbitarte ha tenido el acierto de reunir esos 45 capítulos en un tomo magníficamente puesto en páginas e ilustrado. Un viaje sentimental, trufado de ingenio y de golpes humorísticos, que poseen el valor añadido de la crónica viva de un Bilbao casi legendario. Como dice el director de la colección, Carlos Bacigalupe, "son relatos en sepia, de una honda significación emocional".



### Arbitrajea. Gatazka juridikoak konpontzeko beste baliabidea

ERAGILEA: IXUSKO ORDEÑANA GEZURAGA  
DONOSTIA : HIRIA, 2010  
236 OR. ; 21 CM.  
ISBN: 978-84-9797-373-1

Ixusko Ordeñana Geruzaga zuzenbidean lizentziadun eta doktoreak ordenamendu juridikoan arbitrajea, liskarrak ebazteko baliabide osagarri gisa, aztertzeko helburua duen lana argitaratu du. Hala, kaleratu berri duen liburuan, era sistematiko eta kritikoa azterketa egiten du analisi objektiboa eta subjektiboa uztartuz. Teknika honetara hurbildu nahi duen edonorentzat egoki da gai honen inguruan idatzi den lehenengo lana da. Lan garrantzitsua da egun sistema jurisdikzionalak bizi duen krisiak herritarrek ez ezik, legegilea bera ere arbitrajearen aldeko apustua egitera bultzatu ditu.



### Soziolinguistika eskuliburua

ERAGILEAK: J-B COYOS, J.M. HERNÁNDEZ, L. JOLY, B. URANGA ET AL.  
GASTEIZ : SOZIOINGUISTIKA KLUSTERRA, 2010  
381 OR. ; 23 CM.  
ISBN: 978-84-613-6070-3

Bete du Soziolinguistika Klusterrak sorreratik izan duen ametsa: soziolinguistikari buruzko eskuliburu bat euskaraz idaztea. Hala, eskuliburu honetan soziolinguistikaren nazioarteko oinarritzko teoria eta ikerketak eta Euskal Herriaren teoria eta ikerketa horiek izan duten garapena bildu dituzte. Soziolinguistikaren oinarritzko kontzeptuen definizioak ere gehitu dira. Sei ataletan banatu den liburuk hizkuntza-aldakortasuna, hizkuntza-ukipena, hizkuntza-jarrerak eta hizkuntza-ideologia, hizkuntza-politika eta hizkuntza-plangintza eta hizkuntzak aztertzeke ikerketa-metodoen inguruko oinarri teorikoa eskaintzen du.



### En el taller del escritor. Génesis textual y edición de textos

AUTORES: AURÉLIE ARCOCHA-SCARCIA, MARI JOSE OLAZIREGI (EDS.)  
BILBAO : UPV/EHU, 2010  
255 P. : IL. ; 23 CM.  
ISBN: 978-84-9860-352-1

Con acento inglés, ruso, vasco, castellano, francés e italiano, este libro se acerca al taller de escritores. Y en ese lugar de encuentro con los hacedores de la literatura, metafóricamente nos hallamos, pues, ante la memoria de la escritura. Por citar algunos, se visitan talleres como los de Benito Pérez Galdós, Max Aub y aquellos en los que nacieron poemas de James Joyce y de Valerio Magrelli, o relatos como los de Joseba Sarrionandia. Así también, desde la vertiente teórica y metodológica, el lector hallará las claves esenciales del proyecto *Archivos*, del cual se presenta su modelo esquema de trabajo, crucial en la edición de obras canónicas de la literatura latinoamericana contemporánea.

**ATEJOKA**  
**028**

OTSAILA  
FEBRERO  
FÉVRIER  
2011



Argitaratzailea  
Eusko Ikaskuntza. Miramar Jauregia,  
Miraoncha, 48. 20007 DONOSTIA.

Argitalpen Idazkaria  
Eva Nieto

Argazkiak  
Eusko Ikaskuntzako Argazki Artxiboa,  
Euskomedia Fundazioa eta 3digitala  
(Antxon Aguirre)

Harpidetak  
Atejoka etxean jaso nahi baldin  
baduzu, idatzi edo dei gin ezazu  
helbide hauetara:

Eusko Ikaskuntzako  
Bulego Nagusiak  
Miramar Jauregia, Miraoncha, 48  
20007 DONOSTIA  
Tel. 943-310855  
Fax 943-213956  
ei-sev@eusko-ikaskuntza.org.

Arabako Bulegoa  
General Alava, 5-1º  
01005 GASTEIZ  
Tel. 945-23552  
Fax 945-148752  
gasteiz@eusko-ikaskuntza.org.

Bizkaiko Bulegoa  
Pº de Urbitarte, 10, planta baja  
48009 BILBAO  
Tel. 94-4425287  
Fax 94-4414650  
bilbo@eusko-ikaskuntza.org.

Nafarroako Bulegoa  
Pl. del Castillo, 43 bis, 3. D  
31001 IRUÑEA  
Tel. 948-22105  
Fax 948-21737  
iruna@eusko-ikaskuntza.org

Ordutegia  
Astelehenetik ostegunera 9:00-13:00  
eta 15:30-17:30; ostirala, 9:00-13:00

Horario  
De lunes a jueves de 9:00-13:00 y de  
15:30-17:30; viernes de 9:00-13:00

Iparaldeko Bulegoa  
51 quai Jauréguiberry  
64100 BAIONA  
Tel. 559598290  
Fax 559461844  
baiona@eusko-ikaskuntza.org

Ordutegia  
Astelehenetik ostegunera: 8:30-12 eta  
15:00-18:00. Ostirala: 8:00-12:00.  
Du lundri au jeudi: 8:30-12:00 et 15:00-18:00  
et le vendredi de 8:00-12:00.

L.G.: SS-1150-2008. ISSN: 1889-0342  
Fotokomposaketa: Ipar SL  
Inprimategia: Michelena a. G. Astigarraga